

LEHENGO SERMOIGINTZA ETA SERMOLARIAK OROITUZ

Eguneroko joan-etorri edo gora-behera arruntetan ari direnei ederraren mundu sorgindua urrun, hatzeman ezina gertatzen omen zaie. Hala esan ohi du, behintzat, urteetan aurrera joan arren, izpirituz gazte, irribartsu bezain emankor irauten duen karmeldar olerkari batek...

Bai, ederraren altxorra goi-goiko erpinean liluragarri, desiagarri da bihotzondo samurra, barnealde aberats fina, sentibera eta arte-sena dituenarentzat. Lur gaineko lokatz artean baldarki arrastaka ari denarentzat, ordea, alferriko bezain eskuragaitz. Aho finekoek soilki dasta edo ahogoza dezaketen jaki preziatua.

Ukitu hori hartu duten gaiak; artea deritzon molde edo grazi adierazgaitz txanbelinaren jabe diren gaiak, berez galkorak izan arren, hilezko bihurtu ohi dira.

Sarreratxo honekin, izenburuko harira jo barik, zehar-meharka saihas-bidetik ote nabilen pentsa dezake irakurleak... baina ez dut uste. Sermolaritza artearen, ederraren ildoan kokatu nahi nuen. Gehiegikeria ote? Galtzear edo eta azkenetan dagoen hitzezko arte-ihardueraz, sermoigintzaz moldatu nahi nituzte zenbait gogoeta. Sermoigintza, artederren sailean kokatzerik ez badago ere, erlijio-arte dramatikoaren kideko denik ezin uka.

Jainkoaren Hitza aldarrikatzea da sermoigintzaren zera. Baina helburua didaktikoa izan arren, arteaz baliatzen da Jainkoaren

Hitza erakargarriago bihurtzeko. Beraz, ez da aski egia, eskolan bezala, soil-soilik eta zehat-mehatz adieraztea. Hitz-etorri dotoreaz, ahots-doinu egokiaz, irudiz, sentipenez, gorputz-higikune eta adierazpenez hornitu eta jantzi behar da. Egia aldarrikatuz on dena desiragarri egin eta hura erdiestera eragin behar du sermoigintzak. Augustin Santuak honela diosku: «ut veritas pateat, ut veritas mulceat, ut veritas moveat». Hots, egia argi eta garbi ager dadin, egiak lilura sort dezan, egia eraginkor izan dadin.

Gaur egun sermoi-idazketa da nagusi. Idatzi beti egin izan da, egia esan; baina kristauen aurrean aldarrikatzerakoan bereizten ziren oraingo eta lehengo iharduera. Orain, gehien-gehienetan irakurri egin ohi da hitzaldia. Irakurketa horretan oraindik irauten dute, kasu batzutan, sermoigintza benetakoaren aztarnaren batzuk: ahots-modulazio dotore samarra, paperean begirada gehiegi josi gabe, erraztasun-aidea emanez aritzea eta abar.

Baina behin honez gero, lehenengo sermoigintzarenak egin duela dirudi. Oraingo eran, zehar-meharka edo itzulingeruka ihardun gabe, zuzenki harira jo ohi da: esatekoak labur, garbi eta ia apaindurarik gabe jaulkitzera. Sermoigintza klasikoan hain garrantzitsuak ziren hitzaldi-zati ezberdinak, aintzakotzat ere ez dira hartzen orain. Gogora ditzagun handi-handika hitzaldi-zati horiek:

- Sarrera (exordioa)
- Gaiaren aurkezpena
- Azalpena
- Aldeko argudioak
- Aurkako argudioei ihardespina edo erantzun betea ematea
- Hitzaldi-burua edo laburpena

Noiz, non eta batez ere entzulegoari dagozkion beste zertzeladen arabera erabaki ohi zen zati guzti hauek hurrenez-hurren eta zorrozki kontutan izan ala ez. Dena dela, hitzaldiari osotasun, handitasun eta oparotasun-kutsua eman nahi izaten zitzaion eta ahalbait jantzien egitera jo ohi zen. Hortaz, arrandi-

tsu, jariotsu eta era berean suharta zer sermoigintzaren estiloa. Artearen joeren batetan sailkatzekotan, barrokoan kokatuko genuke.

Sermolaria eta entzulegoa

Kristau herriak erlijiotasun ingurumaria zuen alde guztietatik. Erlijio kutsua nabarmena zen eta giro horrek asetzen zuen gizarte eta kultur bizitza osoa. Komunikabideak -egunkari, irrati eta abar- urri eta indarge zirenez, elizarako joera nabariagoa zen; hara begira zegoen herri xehea. Eliza, saildutegi edo toki sakratu hori ardatz bezala harturik, haren inguruan antolatu ohi zen gizarte-bizitza. Dirudienez, hiriek izatera sekularrago eta askeagoa bazuten ere, herriei euren politika-bizitzan, eliz-kutsu ukaezina zerien. Bizkaian, esaterako, baditugu zenbait izen horren lekuko: «elizateak», «kofradiak» (auzoak), «piela»; herri-batzarreak eliz atarrietan ospatzen zirena gauza ziurra da. Eliz-atari askotan oraindik «pielarriak» daude; hau da: batzarrearen buru legez «piela» eseritzen zen harrizko mahaia. Alkatea hirietako buru zenez, herrietako buru (elizateetako buru) *piela* zen. Beraz, ez da harriztekoa entzulego ziurra, leiala, aproposa izatea orduko sermolariek. Hark zer esango arretaz eta prest-prest egongo zen jendea. Eliza bera ere otoitz-etxe eta sakramentuak ospatzeko saildutegi izanez gainera berri-emaile, kultur bide eta ikuskizun ere bazen hein batetan. Horregatik izenez ere «funtzio», «puntzinoe» eta abat esaten zitzaien elizkizunei.

Predikari edo sermolariaren doaiak aipatzerakoan, «Vir bonus dicendi peritus» esan ohi zuten aintzinakoek. Hots, *gizon on eta hitzun trebea*. Aita Martin Uriarte Karmeldar sermolari suetsuak era herrikoi eta xelegeagoa zuen hori adierazteko: *bularra sendo, samea garbi eta buruan zer esana ugari...*

Pertsonaia gorena, ohoretsua eta txit onartua zen predikaria. Itun Zaharreko profetak bezala, erlijioiko maisu. Bere ahotik zerion hitza, Jainko berberaren mezutzat hartua zen. Baina edonork ez zuen ohore hori, apaiz izan arren. Noiz behinka hantxor-hemen nolabaiteko sermoiren batzu egina izan arren, guz-

tiak ez ziren horretarako gai. Artearekin zer-ikusia duen ekintza dela esan dugu arestian. Beraz, ekintza horretarako ezin beste-koak dira hitz-etorri onekoa, irudimentsu eta sentibera izatea. Horrez gainera, osagarri bezala, beste doirik ere bada; hala nola: gorputzez ere ikuste ederrekoa izatea, ahots gozo harmoniatsua, aktore ona izatea eta abar. Azkenengo hauetan akatzen bat zutenek lan zailagoa zuten gero, lehen begiradan jendearengan nahiz herriko apaizarengan utzitako eritzi kaxkarra desegiten... Honelako pasadizu batzu kontatzen dira izen eta guzti. Erizpide hori, itxura hutsezkoa zena hain aintzakotzat hartzea, benetan tamalgarrria da. Sermolaria ia metrotan edo pisutan neurtzen zela adierazten du horrek, baina...

Ibarrangeluan gertatu omen zen esatera noan pasadizu hau: Gregorio Gerenabarrena edo ezagunago denez, A. Honorio («Munoki») joan zen sermoiren bat egitera. Hango apaizak gorpuzkera edo planta hobekoren bat itxaroten zuen, dirudienez, eta fraile txiki lotsor antzeko bat ikustean, hitzetik hortzera bota omen zion: «hi hator.?» Beste batzuk ere izan dituzte arazoak hori zela eta ez zela. A. Juan Iturregik hiru bat lekutan berari gertatutakoa adierazi zidan. Honelako bi lekutakoa aipatuko dut hemen: Otxandiora joan zen Aste Santu batetan. Hango erreto-rea eta harekin batera sermolariari abegi egitera kotxera hurbil- du zirenak iruzurturik bezala agertu omen ziren. Hitzik ez zuten esan, baina keinuz edo... Hain gizon txikia eta egingo ote du honek gauza honik... Baina sermolariak igerri, eta baritono ahots sendoz hitz egiten hasi omen zen eta orduantxe lasaitu otxandiotarrok. Goizeko lehenengo hitzaldia Eukaristiaz izaten omen zen eta haren ondoren apaizak esan zion: «Zuk honez gero entzuleak zeureganatu dituzu, kantariak ere korutik irten gabe adia- adi edukitzea lortu duzu eta».

Bigarren kasua Nabarniz-en. Jose Etxandia zen erretore. Jende guztia orain futbolera joan ohi den antzera, gogotsu ingu- ratzen zen elizaldera, batez ere misioiak edo zirenean, baita mi- siolariei bidera irten ere. Ilunabarrean heldu ziren biharamo- nean hastekotan. Hasi baino lehen oharterazpen hau egin omen zion erretoreak: «meza aurretik zerbait esan edo, egin beharko

diozu herriari, zu ikustean ez du batere eritzi onik jaso eta...» Hala egin omen zuen gure hizlari errime eta jatorrak eta gero-koan gauzak bere bidean eta egoki joan omen ziren.

Garai batetan, agiri zaharrek dioskuenez, sermoigintzari be-
te-bete emanak eta beren-beregi horretarakoxe izendatuak
zeuden komentuetan. Horrelakoa zen, adibidez, Prai Bartolome
Santa Teresa XIX. mendean. Gerora ez dugu horrelakorik ikus-
ten. Erraztasuna zutenek, ondo moldatzen zirenak, beste edozein
ekintzetan bezala, zeregin horri helduko zioten gogotsu, baina
gutxi-asko, beste batzu ere saiatuko ziren horretan. Beraz, gal-
baheketa ezarian-ezarian edo berez-berez egingo zen.

Entzuleen garai batetako jarrera eta gogo onaz zerbait esan
dugu goraxeago, baina beste zertzelada hau ere esan beharra
dago: alde batetik idatzizko informazioa murriztuta eta eskuragaitz
zitzaien eta horregatik behar bada, baina goian aipatutako erli-
jio-atxikimenduagatik batez ere, entzuleen oroimena harrigarria
zen. Sermoi zati luzeak bururen buru gogoratzen dituzte. Idatzi-
rik ikusteko aukerarik ez zenez, arretaz eta zentzumenak zoli
izan ohi zituzten. Gauza bera gertatuko zen kantari, koplari eta
bertsolariekin ere: kanta zahar, koplak eta bertsoak entzuleen
oroimenean kokatzen ziren sekulako. Oraindik orain, larogeitak
urteetako atsotxo jator maitagarri batek 9 urteko zela amari
entzundako 13-14 bertso buruz, hasi eta buka jaulki zituen
Arrate Irratitik!

Entzulegoaren artean, erlijio-joera eta berezko senagaitik,
emakumeak aipatzea ezinbestekoa da. Euskal Herriko etxeetan,
salbuespenak salbuespen, ama izan ohi da erlijio-bizitzaren gida-
ri. Berak zuzendu ohi du egunean zehar une berezietan familian
egiten den otoitzaldia; haurren erlijio-irakasle ere bera izan ohi
da, dotrina eta lehen otoitzak irakatsiz. Beraz, etxeko apaiz orde-
ko edo, ama dela esan genezake. Zeregin hori ez dio beren-
beregiri inork ezartzen, baina tradizioz, belaunez-belaun bere
gain hartzen duen zera da. Ideia hau nahiko garbi agertzen da J.
M. Barandiaran-en idazlanetan. Behin, gogoeta horretan nihar-
duela, olerkitxo hau ondu nuen eta harira datorrenez, egoki de-

ritzat hemen ezartzeari. Hona hemen:

Exil-mixilka ihintza
zelairatzen den garaiz
egunsentiaren irri
txorien doinu alaiz,
ezpain ertzetik otoitzak
zihizkatzen ditu maiz,
ama baita euskaldunon
etxe barneko apaiz.

KRESALA elaberriaren egileak, euskal ohituren adierazle bikain eta gainera apaiz zenez, ondo baino hobeto jasotzen du sermotan entzuleek zuten gogo edo arreta hori:

«Itzaldi edo sermoia barriz onenetakoa izaten da, bada egun horretarako inguruetan danik itz leun eta garbieneko abadea biltatu oi daroe. Izerditan eta lurrinetan egoten dira elizeak artu al dituan gizaldrak eta geiago, zutiñik, begi eta belarriak esna dituela, mezeari begira ta erestokikoen deadarrak eta irakastegi-koaren esanak gogoz entzuten.

-Mutillak -esaten dabe, piperra baño gorriago ta buruko ule guztiak tente dituela elizatik urtetean,- axe da eztarria, eztul bat be eztau egin.

Ezta izaten arranondotarrak zefiegaitik diñoen itandu bearrrik, danak eukiten dabie gogoan gauza bat: erbestetik ekarri dan sermoegillea.

-Eztauka jakituria makala, areik gauza guztiak buruan gordeteko.

-Ta eztul bat bez, gizona, eztul bat be eztau egin.

Au izaten da gauzarik onena Arranondoko izlaria izateko: eztulik ez egin bear» (ik. 50-51. orr.).

Sermolariak eta bertsolariak

«Auspoa» liburu-bildumara jotzea aski da bertsolari zaharrek eta predikariek elkarrekin izan duten zer-ikusiaz konturatzeko. Sermolariek eta, orohar erlijioak, bertsolariengan zuten

eragina gauza nabaria da. Antonio Zabalak honela dio «Kristau-bidea Bertsotan (I)» deritzan liburuaren hitzurrean:

«Euskal fededun, esan oi zan garai batean. Gaur esaera orrek lengo indarrik ez badu ere, orain urte batzuk ori egi-egia zanik ez du iñork ukatuko.

Au ola izanik, fedearen egiai buruz jarritako bertsoak mor-do galanta osatuko zutela, edozeñek pentsa zezakean.

Bertso-sail oiek gaur eskeintzen dizkiogu irakurleai, bi liburutan. Bafian orain bafio len ere, olako bertso asko ditugu argitara emanak. Bat edo beste, Auspoa'ren ale denetan edo geienetan arkituko du irakurleak. Izan ere, nekez arkituko da, orain arteko bertsolarietan, olako saillik paratu ez duanik».

Bilduma bereko beste liburu batetara jo dut huts edo bete eta hitzurrean bertan hona non datozen izenburu hauek: «Alzo'ko Imaz'en Pasio Santua»; «Alzo'ko Mixioa» eta «Azken Jui-zioa»; «Azkoiti'ko Jose Maria Estrada'ren Pasio Santua»; «Azpei-ti'ko Frantzisko Iturzaeta'ren San Inazioaren bizitza»; «Meza San-tua (...)».

Liburu-sail honen arduradun argiak esaten digunez, Santa Jenobebaren bizitza eta Jesusen Pasioa bertsoan jarri zituen Juan Kurutz Zafirain-ek ez omen zekien ez irakurtzen eta ez idazten. Santa haren bizitza-zatitxo bat arratsero irakurtzen omen zen Zafirainen etxean. Hark, entzundakoak gogoan erabiliz bertsoak paratu, biharamuncan emazteari ahos esan eta honek esan ahala paperean jaso. Baina Pasio Santuaren bertsoak berak elizan entzundako sermoiak oldoztuz moldatuak omen dira. Ez, ordea, egun batetik bestera moldatu eta paperean jasoak. Urteetan eta txikitarik entzun eta gogoan itsatsiz zihoazkionak izan behar dute.

Xenpelarren bertso berrietan sermolarien eragina nabari-nabaria da. Hona lekukotasun hori adierazten duten zenbait gai:

- San Joseren zazpi doloreen bertsoak.
- Jesusen bost llagari jarriak.
- Santa Barbararen heriotzakoak.

- Konfesioarenak.
- Jesukristoren Pasioari jarriak.
- Balentin Berriotxoari eginak.
- Azken juiziokoak..

Hain zuzen ere abenduko lehen igandean zazpietako meza-
ra joan eta han sermotan entzundakoaz jarri omen zituen bertso
gogoangarri horiek.

Pasiotarrek emandako misioak aipatzen ditu Txirritak, han
entzundako ideia nagusienak eta barnean sortu dizkioten zirra-
dak bertso egokietan borobilduz.

Urretxindorrrarengan, Xalbadorrrengan sermolarien ohiar-
tzun bizia antzeman dezakegu. Aro guztietako bertsolarien
ezaugarria herri-bizitza bere osotasunean kantatzea izan da; hor-
tik herri-bizitzaren sailik esanguratsuenak (eta erlijio-gaia horre-
lakoa zen) azpimarratzea.

Karmeldar sermolari aipagarriak

Izen batzu aipatu gabe ez nuke lantxo honetan etsi nahi.
Aipamen hauek, baina, nahitaez mugatuak, handi-handikoak
izan behar eta Karmel-en, karmeldar hizlaririk bikainenak edo
halakotzat jotzen direnak agertzeari deritzat egokien.

A. Jeronimo (1846-1921)

A. Bartel frantziskotarrarekin batera, mende honen hasie-
ran, cuskal pulpitueta sermolaririk bikainena, behar bada.
Karmeldarretan, besteak beste honako karguak izan zituen:
Markinako nagusi izan zen eta Ordenako Jeneralaren aholkuari
ere bai Erroman. Markinan nagusi zela sertan esanik ere ez, bai-
na Erroman kargu hori izan zuen bitartean ere, noizbehinka ho-
natz etorri eta ahal izanik, han ekiten zion herriz-herri sermoi-
gintzari. Bere-berea zuen arlo hori. Etxekoan, fraileen artean
baino kanpoan ospe handiagoa zuen. Mirespen berezia zioten
herrietan. Etxean... bekaintza ote? Txikikeriak: ia beti etxetik

kanpo aritzen zelan, euskara mordoiloa erabiltzen zuela eta abar egozten zizkioten akats bezala. Herritarrek, gerora ere hartaz oroitzen ziren, eta edozein karmeldar ikustean Jeronimoren sermoigintzarako jasa, prestutasuna gorai patzen zuten. Herriren batetan hango erretoreak, A. Jeronimok eman behar zuen misioa eliztarrei iragartzerakoan, harako Jon Bataiatzaileak Jesusi buruz esandakoa birresan omen zuen: «ni ez naiz inor, haren oinetakoen lokarria askatzeko ere»... Gorputzez gizon haundi eta guztiz zabala. Trenean sartzeko ere albokera edo egin behar izaten omen zuen. Ahots eder, gozo, atsegingarria. Bihotzera hitz egiten zekiena zen. Parkamen edo Jainkoaren errukiaren hitzaldietarako berebizikoa. 1921.ean hil zen.

A. Martin Uriarte (1879-1960)

Idazle ere bazan Zeanuriko seme hau. KARMENGO ARGIA-n idatzitako «Baserri gaiak» eta batez ere «Egi biribilla» askoren gogotan daude oraindik. Baina hemen sermolari gisa aipatzen dugu. Bizkaiko elizetan inor ezagunik izatekotan, A. Martin. Batez ere hitzaldi asko egina zen. Gehien-gehien Arratzun. 400 sermoi inguru bai. Bere joeraz sermolari garratz, sutsu



A. Martin arrebeekin

eta zaratatsua zen. Trumoi-hotsaren orroetan ekiten zion pulpito lanari. Gogoko zitzaion sermoigintza. Edozein herritara beste sermolariren bat lagun zuela misioak ematera edo joaterakoan, ia lan guztia bere gain hartu ohi zuen: «Neuk, neuk egingo dot». Garrasiaren garrasiz eliza dar-dar jarri behar, bere buruari tratu txarra emateraino. Hitzaldi asko egin arren, ondo-ondo prestatzen zenetarikoa genuan A. Martin. Sermoia *orraztu*, *orraztu* egin behar zela esaten omen zuen. Bere-bereak zituen gai batzutan ondo asaskatzen zen. Azken Epaikundea, Infernua etab. zituen gustoko gaiak. Behin Zaldibarren bota omen zituen botatzekoak. Infernuko egoera garratz eta beldurgarri adierazi omen zuen, baina era berean irudimen jori batez ehotako zertzelada koloretsu eta bizibiziz. Jendea dardarka! Baina, beste herri askotan bezala, han ere umoretsu eta zirtolaririk bazenez, batek esan omen zuen: «mundu honetara berriro itzuli den hildakorik ez dela? Bat ezagutu joagu, ba! Haren aurpegi baltz kiskaldua, haren zertzelada eta inpernuko gorabeherak zehatz-mehatz esan beharra! Bertan izan ez danak etxaukok holan esaterik.»

A. Tirso (1878-1956)

Julian Erdoiza Arizmendi zen izen-deituraz; Tirso ordena barruko izena zuen. Bernagoitian jaio zen. Bizkaiko seme izan arren, apaiz egin ondoren, 28 urte edo zituela, Donostiara joan zen eta han iraun zuen hil arte. Horregaitik «giputza» esaten zioten beste sermolari bizkaitarrek. Hau ez zen sermolari sutsu, garratz eta zaratatsua. Estilo aldetik fina, dotorea, distiratsua, bikaina zen. Gipuzkoako herrietan ospe handikoa. «El vasco guapo» deitzen omen zioten Donostiako erdaldunek. Autorle bezala ere oso onartua eta begirune handiko gizona. Hasi-berrien edo sermolari gazteen artean mireспен handia sortzen zuen.



A. Florenzio (1882-1963)

Leon Gortazar Intxaurbe zeritzan, baina Karmeldarretan eta sermolari gisa, A. Florencio izenez ezagutua. Zeanuriko semea. Euskal Herrian 1908.etik 1936.era arte bizi izan zen herrizherri sermolari oparo eta trebe. Larrean, Markinan, Begoñan eta bigarrenaz Larrean. 1930.etik 1936.era arte Gipuzkoako komentuetan bizi izan zen: Donostian, Eibarren eta Altzon nagusi izan zen. 1937.ean Frantziako Agen-en aurkitzen dugu. Urte horretako azaroan Perura egin zuen ihes, garai txarrak ere baziren haiek eta. Han hil zen, hogetasei urtez bertan lan egin ondoren.

Ezagutu dutenen eritziz sermolaririk onenetarikoa zen. Prestatu ere halaxe egiten zen. Hitzaldia idatzi eta gero Aita Gu-
rea bezala buruz ikasten omen zuen. Garai horretako sermolarien jokaera hori zen. Ez bestetara egiteko gai ez zirelako, Jainkoaren Hitzari zioten begiruneagatik baizik. Horrela hitzaldia dotoreago, esaldietan biribilago, jantziago egitea lortzen zuten. Badu horrek, hala ere, bere alde txarra: behin horrela ohituz gero, epe laburrean prestatzeko astirik ez. Igande arratsalde batez, hitzaldia eman behar zuena ustekabe gaisotu edo egin zen Larrean, eta prestatzeko astirik gabe, A. Florenzioren leporatu zion nagusiak zeregin hori eta honek nahi ez! Egin beharrekoa zenez, azkenean egin zuen, baina huts edo bete nolana Jainkoaren Hitza azaltzera ausartu barik, liburu egoki bat eskuratu eta bertatik irakurri omen zuen. Euskaraz beti ere hobeki, baina gaztelaniaz ere ederki moldatzen zen. A. Jenaro Larruskain-ek, aintzinako sermolari guztietarik ia onena bezala gogoratzen du. A. Juan Iturregi-k dioenez, behin baino gehiagotan haren sermoiren batzu eskuartean izanik, benetan dotore eginak, mamintsuak zirela aitortzen du. Ikus dezagun Santi Onaindia-ren kritzia ere: «Izlaritza zan bere dei berezia, ta ortan ari eta ari on ikaragarria egin zuela esan dezake-



gu euskaldun arimetan. Ba-zuen doairik orretarako: adimen zolia, biotz sutsua, gomutamen ederra eta abots indartsu ta ozena. Berezko auekin bere alegiña elkartzen zuen: irakastegira igo bear zuen bakoitzean, ondo baiño obeki gertatu oi zan Jainkoaren itza iragartzeko; erreztasun aundia zuen arren, etzan egundo ere aotik ortzera itz egiten duten oietakoa. Euskera gozoa zuen, eta esaten etzitzaion palta gatza ta ganora. Makiñatxo bat itzaldi eder entzun genion!» (Euskal Lit. IV.a, 138. orr.).

A. Lontzi (1891-1949)

Orain Zornotzarekin bat eginik dagoen Etxanoko Boroa auzoan jaioa. Kepa Ormaetxea Aldana zeritzan. Hainbat lan idatzi zituen bai hizlaur eta bai olerkiz ere. Idazlanetan, orduan ohi zenez, izenorde ezberdinak erabiltzen zituen. Gehienetan hauek: «Lontzi Aba», «Ormalda», «Ormetxe», «Ormaetxea'tar Kepa». Burgo de Osma-ko Karmeldarretan bizi izan zen aldikada batetan, han ere sermointzian laster nabarmendu zelarik. 1931.etik 1937.era bitartean Larrea eta Markinako komentuetan izan genuen, lan bikaina eginez herriz-herri sermolari. 1937.ean gudu-zaparradak ha-



siak ziren eta Txilera jo zuen. Han ondu zituen bertsoetan ipuin liburutxo bi. Hala ere, osasunez kili-kolo eta indarge, bere gogoak nahi bezainbat lan ezin izan zituen burutu. Viña del Mar-ko komentuan hil zen. 1949.eko urtarrillaren 15ean. Hitz-olde eta etorri oneko sermolaria zen. Esaldi luze, biribilez hornituriko hitzaldi dotoreak egiten omen zituen. «Papa-pa, guztia ia arnasa batez bota ohi zuen» -diosku A. Jenaro Larruskain-ek. Horregatik edo, «Castelar» deitzen ziotela

dio. A. Santi Onaindiak ere gauzá berdintsua dio: «Aspertu gabe mintzatu zan A. Lontzi Bizkaiko elizetan batez ere. Éta, ia beti, idatzi, buruz ikasi eta bota oi zituen itxaldi oiek (...). Kikeron'ek bezelako esaldi luze ta durundutsuak eder zitzaizkion. Gisa onetan daude borobilduta utzi zituen eliz-jardunak, mordo ederrak ain zuzen ere». (Euskal Lit. IV.a, 102. orr.).

A. Apolinar (1882-1946)

Pio Ibaibariaga Oregi Haren heriotza-data zehatzik ez dut eskuartean. 1946.ean Begoñako Karmelon aurkitzen dugu; baina gerora ez da inongo izen-zerrendatan ageri... Garaiko semea zen. Pulpitura igoten zuenean, hain gizon haundia izanik, ia ikuskari bilakatu ohi zen. Buruz ondo-ondo ikasi eta egoki prestatzen zela dioskue lekukoek. Gauzak ondo egiten zekiena genuen: dotrina azaltzerakoan batez ere ganora handiz, patxadaz, jasez. Patriarka bat zirudien. Kontakizunetan egoki, beti kutsu ona uzten zuen entzuleengan. Zihurtasuna zuen eta aholku-emaile ezin hobea genuen. A. Juan Iturregi-k esan didanez, hodeietatik bariarik, lur gainean zebilenetarikoa zen, gizon praktikoa, etxeko obra, konponketa eta abarretan eragile trebea.

Osasuntsua ez zenez, bizitasun gabe azaltzen oten zen, dio, ordea, A. Jenaro Larruskain-ek. Aipaturiko besteok baino maila apalagoan ikusten zuen lekuko honek. Dena dela, Bizkaiko herrietako zahartxoei oroimenean ongi itsatsirik geratu zitzairen haren irudia.

Lehen go sermolarien artean oraindik beste bat aipatuko dugu: Sotero Urionaguena Garro, edo ezagunago zenez, A. Rafael. Bolibarko semea. Zuhurtasun aparta zuen gizona. Honek bai bazekiela, irudimenaren hegoetan galdu gabe lur gainean ibiltzen! Harrigarria beronen kasua: Ekinaren ekinez zailtasun guztiak gainditurikoa zirudien. Berez ez zen batere hiztun ona. Ez zuen erreztasunik erakusten ez euskaraz eta ez gaztelaniaz. Gazte zela, Altzon, dotrinako haurrei ipuintxoak kontatuz joan zen trebatuz... baina gerora ere ahopean bezala hitz egiten zuen. Hala ere, pulpitura igonik, sermolari fin eta jasekoa bilakatzen

zen. Ia miraria zirudien, baina egi-egia. Jainkoaren Hitza azaltzeari zor zaion lotsaz eta ganoraz iharduten zuen beti. Beste aldetik gizon on, bihozbera, aholku-emaile zuhurra zenez, txit onartua zen herrietan. Bizkaieraz nahiz gipuzkoeraz ia berdintsu moldatzen zen.

Hitzaldiak buruz ikaste hori dela eta, kasu larri-larri bat gogoratzen du A. Juan Iturregi-k: A. Higinio Gorrotxategi Alberdi-ren kasua. Sermoigintzari emana bizi zen, baina benetako oinaze bihurtu zitzaion zeregin hori. Zama eramangaitza. Dirudieenez, ez zen oroimen onekoa, eta pulpituko martiri gisa, zer edo ha egin behar, eta horretarako eskaini zuen bere burua. baina beti ezinean, edozein unetan porrot egiteko arriskuan. Behin baino gehiagotan gertatu omen zitzaion hizpidea galdu, eta jende-aurreko lotsari handitan, paperera jo beharra.

Orduan hitzaldia paperetik irakurritz egitea lotsagarri bezain onartezina omen zen. Sermoigintza gurutze eramangaitza bilakatu zitzaion. Astelehenetik igandera arte ia eten gabe horretan ematen zuen, gelan ikasi eta ikasi. Noizean behin, arnasa pixka bat hartzeko ere, aurpegia gorri-gorri, leihorantz agertzen omen zuen burua. Hartaz errukiturik, A. Julio Ibarak esaten omen zuen: hark sermoigintzan hartu ohi zuen gurutzea baino erreza-go zela kutxa astun bat lepoan dela Cadiz-tik hona oinez etorri...

Lehenko sermoigintzaren oihartzuna bizirik

Aurreko izen ospetsu horien ondoan beste bi izen ere hementxe ezartzea ezinbestekoa zait, euskarazko sermoigintzan punta-puntan ibilitakoak baitira: Hilario Larruskain Olalde edo, ezagunago denez, A. Jenaro («Makarda») eta Florencio Beobide Olibares, guretzat A. Jose Luis. Bi hauen distira ez da oraindik itzali, ezta hauen ahotsa isildu ere. Azken aldi honetan sermoigintzako joerak erabateko aldakuntza izan arren, sermolari biok hortxe diraute, harri tinko bezala, sermoigintzaren gailurrean. Gazte-gaztetarik jario oparoan dago bion hitz-iturria. Langintza sakratu horretan bide luzea egina dute. A. Jenarok aitortu zidanez, Bizkaian ia euskal pulpitu guztietan eta Gipuzkoan ere as-



A. Jenaro gurasoekin

kotan (batez ere Bizkaiaren mugakide direnetan) egona da. Hori marka gogoangarria da; oso gutxi on dezakeena. Langintza hori (era guztietako sermoiak: gogo-jardunak, misioak, hirurrenak eta abar) gogorra ote den galdetzean, baietz erantzun zidan; talde ezberdinei banan hitz egin beharra etorri zenean batez ere. Bi misioi eta hiru ematea, tira; baina hortik gora astun egiten zela aitortu zidan. Urte batetan zazpi misioi segidan, bata amaitu orduko bestea hasi, egina dela ere esan zidan. A. Jose Luis ere hortxe-hortxe ibiliko zen, gehien-gehienetan elkarrekin aritu izan dira eta. Hauen birtute edo sermolarioaiez ez dago ezer esan beharrik, herri guztietan ezagunak eta guztien gogotan baitaude. Sermoigintzan lan eskergaitza, bikaina egin dutela euskal pulpituetan, hori bai aitortu beharra dago argi eta garbi eta idatzirik utzi betiko, lekukotasuna gera dadin.



Azken hitzak

Sermoigintzan joera edo estilo bi nagusitzen direla batez ere, esango nuke: bihotza hunkitu, sentimenduaren barne-hari finak dardarazten dituen hitz-jario egokia, distiratsua, hitzaren artista paregabearen adierazpide joria. Edo eta dena kiskaldi ohi duen hitz-olde gorria; dotoretsua eta gozotasunetik baino suhartzun garratz indartsu eta aberatsetik hurbilago dena. Izpirituan zirrara ezberdinak sortzen dituzte batak eta besteak. Hark liluratu, jaso; honek abaildu, garbatzera eragin. Bata nahiz bestea beharrezkoak. Noiz, non eta noren aurrean den kontutan hartuz, hura edo hau izango da komenigarriago...

Baina zer ote du predikariak entzulengoarengan ondorio guzti horiek lortzeko? Urliak doai hau edo hauek izango ditu nagusiki; sandiak, agian, denetarik izango du pixka bat. Baina prestutasuna nahitaezkoa da. «Etorria» esan ohi du herriak: «Horrek jaukak etorria!». Etorria, iturria edo ekarria... baina zerbait bai. Berezko sen adierazgaitza; eta gainera horretan urteetan zehar aritua izateak, eskarmentuak eman ohi duen ganora eta erraztasuna.

Luis Baraiazarra